

Autismo Araba (Autismoaren Espektroaren Nahasteen Arabako Elkarte)



Pintor Pablo Uranga 2, etxabea kalea
945 22 18 59

asociacion@autismoaraba.org / www.autismoaraba.org

Autismoa Araba irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, eta, sortu zenetik, erreferentea izan da Araban, autismoaren espektroko nahasmenduak (AEN) dituzten pertsonen defentsan egindako lanari esker. 1994tik Autisten Gurasoen Elkartearen Federazioan sartuta dago. Elkartearen organigramak aukera ematen du artatutako erabiltzaileen gurasoeak izan daitezen erakundearen bilakaeraren kudeatzaile nagusi eta partaide.

Elkarteak arreta psikologiko eta sozialeko zebritzuak ematen dizkie kaltetuei eta haien familiei. Eguneko Zentro bat dute, beren eskola-etapa amaituta garapen pertsonal eta sozialerako laguntza-premiak dituzten helduentzat, eta Topagune bat, AEN duten kideak dituzten neste familia batzuekin esperientziak partekatzeko. Autismoa Arabak, gainera, Enplegu Zentro Berezi bat du, eta bertan desgaitasuna dute 5 pertsonak egiten dute lan, Aaldabeko eta geltokiko plazako aparkalekuak kudeatzen, hain zuzen ere.

Egiten dituzten jardueren artean, kirol-programakoak, programa psikodozialekoak eta familia-laguntzako programakoak nabarmentzen dira. Gainera, lankidetzeta-sinergiak ezarri dituzte sektoreko beste elkarte batzuekin, eta harreman berezia Scouts, Gaztedi Rugby Taldea eta Ekhitarrak Kirol Klubarekin.

Fundación Vital Fundazioaren lankidetzeta

Arabako Autismoarekin 2002an hasi zen lankidetzan Vital Kutxaren Gizarte Ekintzatik, begiraleentzako jardunaldi batzuen garapena eta kirol-materiala finantzatzeko. Orduz geroztik, eta Vital Fundazioa denetik, laguntza horri eutsi zaio urteko hitzarmenak sinatuz, aisialdiko, adierazpen artistikoko, kiroleko, arlo terapeutikoko eta abarreko programak garatzen laguntzeko.

Azken urteotan, erakundearen laguntza batez ere programa jakin bat babestera bideratu da, hau da, 'Inklusiorako urrats sendoa'.